



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

49 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Iruña-Logroño errepeidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, gaixoa-zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen (7. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ondare historiko-artistikoa osatzen duten ondasunak errespetatu eta babestu egin behar direla (14. or.).

—Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan (16. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa (18. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariaren ebazpena, 2001eko apirilaren 9koa, Kontuen Ganbarako antolamenduari buruzko erregelamendua aldatzen duena (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Foru Diputazioak, 2001eko apirilaren 24an hartutako erabakiaren bidez, Iruña-Logroño erre-pidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko maiatzaren 28ko eguerdiko hamabietan** bukatu-ko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko tal-deek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkez-ten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Iruña-Lizarra-Logroño ardatza edukiera handi-ko errepide gisa eraikitzea munta handiko helbu-rua da Nafarroako eskualde zabal bat, Estellerria batez ere, sendotu eta garatzeko, eta Nafarroako lurraldeen arteko oreka bilatzeko, errepideen azpiegiturei dagokienez. Edukiera handiko errepi-de horren eraikuntzari esker lotu dira Nafarroa eta Ebro Haranaren iparraldea, -Logroñon barna-, gure ingurune herrialde eta eremu ekonomioe-kin izanen ditugun harreman sozial, komertzial eta industrialen sarea zabaltzearen alde jokatz.

Nafarroako Errepideen I. Plan Gidariak errepi-de hau kontuan hartu zuen Nafarroako komunika-zioaren ardatz estrategiko bezala, Nafarroako Parlamentuak hura 1997ko abenduaren 2an one-tsi zuenean.

Iruña-Lizarra-Logroño errepidearen egungo egoera, trafikoak zer bilakaera izanen duen eta Nafarroako eskualde horrek behar duen komuni-kazio sarea ikusita, argi dago berehala bihurtu behar dela autobia errepide hori.

Iruña-Lizarra-Logroño autobia berriko inber-tsoiak, guztira, 48.000 milioi pezeta (288,05 Meuro) egiten ditu, behin betiko trazadurak eta haiek eraikitze proiektuak prestatu ahala zehaz-tuko bada ere. Iruña eta Lizarra arteko autobia tarterako, 30.000 milioi pezetako (180, 03 Meuro) kalkulua egin da.

Horrelako komunikazio bide bat egitea asko luzatu daiteke baliabide ekonomikoak jartzen ez badira. Administrazio publikoen aurrekontuko gastuaren kontrolak, gaur egun, munta handiko obretarako baliabideak erabiltzeko ahalmena mugatzen du, eta horixe bera gertatzen da Iruña-Lizarra-Logroño autobian.

Espainia Ekonomia eta Moneta Batasunean integratzeko gure erkidegoak erakutsi duen elkar-tasunaren ondorioz, Nafarroak Aurrekontua Bategiteko Eszenatokia eta Egonkortasun Ituna onartu behar izan ditu, eta mugatuta gelditu dira zorrak hartzeko Foru Ogasunaren ahalmena eta aurrekontuaren defizita.

Horregatik, Nafarroak edukiera handiko errepi-de hori lehenbailehen izan dezan, ekimen pribatuaren partaidetza onartu behar da hura finantzatzeko prozeduran. Horrela, obrak egiteko epeak aise laburragoak izanen dira eta, batez ere, askoz lehenago jasoko du gizarteak onura, inbertsio horiek sortutako aberastasunaren ondorioz.

Europar Batasunak babes handia ematen dio ekimen pribatuari azpiegitura publikoak finantzatzeko, eta bada horren esperientzia bai European bai Espainian.

Ekimen pribatuak azpiegitura publikoen finantzaketan laguntzeko eta, beraz, dagokion arriskuaren kargu egin dadin, kontzesioa da moduetako bat, non "eskaeraren kanona" aplikatzen baita. Horren bidez, Administrazio Publikoak, eraikitzen den azpiegituraren titularra denez, komunikazio bidetik zirkulatzen duen trafikoaren arabera ordaintzen dio kontzesio-hartzaileari, eta muga batzuk jartzen dizkio ordainketa horri, trafikoaren, errentagarritasun ekonomikoaren, inbertsio eta eragiketa kostuen edo kontzesio-hartzaileari bideragarritasun ekonomikoa bermatzen dioten beste parametro batzuen arabera, baina Administrazio Publikoaren esku uzten du zer ekarpen ekonomiko egin proiektuari kontzesio epeak dirauen bitartean.

Edozein eraikuntzari dagokion industri mozkina eta ohiko zorpetze publikoaren sistemari lotutako mozkin finantzarioa bateratu nahi ditu proposatu sistemak, kontzesioa hartzen duen sozietatearen fondoei honenbesteko bat ordainduz, ustez eta enpresa proiektu baten arriskua murriztean ondoriozko tasak ere aise murrizten direla eta, beraz, enpresaren mozkina ere. Horregatik, proiektuaren kostuak, guztira, ez du nahitaez ohiko finantzaketa publikoaren kostutik alden du behar.

Foru lege honek Iruña-Lizarran-Logroño edukiera handiko errepede berria eraikitzeke kontratazioa eta ustiapena arautzen ditu, eta, aldi berean, aukera ematen dio Nafarroako Foru Komunitateari bere laguntza ekonomikoa eman dezan, aurrekontuko baliabideen bitartez edo diruz bestelakoen bitartez, zein komeni den.

Nafarroako Ogasunari ekarriko dizkion ondorio ekonomikoen aldetik, foru legean aurreikusitako

prozedurak bide ematen du urte anitzeko konpromisoak hartzeko, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko foru legeak uzten duenetik haratago, horren beharra baitago kontzesio epeari dagokion gastu konpromisoa hartzeko.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea baldintza administratibo eta finantzarioak ezartzea da, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean Iruña-Logroño edukiera handiko errepedea eraiki, zaindu eta ustiatzeko kontrataziorako.

2. artikulua. Kontratazioa.

Kontzesio bidez eraiki, zaindu eta ustiatuko da errepedea, oso-osorik edo zati bat, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 foru legean ezarritakoari jarraituz.

Lehiaketaren oinarrietan ezarriko da kontzesioaren gehieneko epea, baina inoiz ere ez 30 urtetik gorakoa.

3. artikulua. Finantzaketa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontzesio lehiaketaren klausula administratibo partikularren pleguan zehaztuko du aurrekontu bidezko fondo publikoen ekarpena, edo diruz bestelakoa.

Ekarpen guztiek ekarriko dute tarifa murriztea edo kentzea errepedea erabiltzeko; bestela, tarte jakin batzuen erreskate aurreratua.

1. Aurrekontu bidezko fondo publikoak azpiegitura erabiltzeko sartzan direnean, haien kalkulua egiteko, errepedearen tarte bakoitzeko erabiltzaileen kopurua, gizartearentzat duen errentagarritasuna eta errepedeko zerbitzu publikoa egiteko obligazioa hartuko dira kontuan.

2. Aurrekontu bidezko fondo publikoak azpiegituran berean inbertitzeko sartzan direnean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak beste administrazio publikoekin egindako itunen ondoriozko fondoak ezartzen ahal ditu, edo Europar Batasuneko egitura funtsetakoak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak diruz bestelako ekarpenak egiten ahal ditu, esate baterako, lehendik egindako obrak, guztira inbertsioa murrizteko eta kontzesio kontratua- ren barrenean zaindu eta ustiatu beharreko azpiegituraren parte izan daitezten.

4. artikulua. Bideragarritasunaren azterlana.

Obra kontzesioaren espedientea abiatu aurretik, bideragarritasunaren azterlana egiten da. Ber-

tan, azpiegitura erabiltzeko hipotesi ekonomikoak jasoko dira, Foru Komunitateko Administrazioak aurrekontu bidezko funts publikoen bitartez edo diruz bestelakoen bitartez egin beharreko ekarpenak zehazteko, eta kontzesioaren kontraturako baldintza ekonomikoak ezartzeko.

5. artikulua. Gastu konpromisoa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 41.3 artiku-

luan ezarritako denbora muga ez zaio foru lege honetan aurreikusitako obrari aplikatuko, aurrekontu bidezko funts publikoen ekarpena, 3. artikuluan jasoa, egin dadin.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitaratu dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Kontseilua, martxoaren 17ko 8/1999 Foru Legearen bitartez eratua, ekarpen garrantzitsua izan da Foru Komunitateko erakunde-egiturarako; izan ere, bertako erakundeen eskueran goi-mailako kontsulta-organo bat ezarri du. Kontsulta-organo horrek, Gobernuaren Administrazioarentzat ez ezik, Erkidegoko erakundeentzat ere lan egiten du. Hala diote Nafarroako Par-

lamentuak, Gobernuak eta beste erakunde batzuek eskaturiko irizpen ugariak.

Aipaturiko erakundeak urtebetez funtzionatu ondoren, agerian geratu da beharrezkoa dela foru legeko 6, 16, 17, 18, 22 eta 27. artikuluetan aldaketa batzuk egitea, Kontseiluak berak 2000ko oroit-idazkian adierazi duen bezalaxe, aldaketa horiek egin behar diren arrazoiak azalduz. Horrela, Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkorren gauzaturiko alferrikako organo-bikoizketa hori kendu egiten da, eta, horren ondorioz, beharrezko gertatzen da horren arabera gai-banaketa egokitzea eta aipaturiko batzordeari buruz egiten ziren aipamen guztiak eta hari egiten zitzaizkion gai-esleipen guztiak kentzea. Hitzarmen eta lankidetzak akordioei buruzko aholkua emateko araubidea zehaztu egiten da, Nafarroako Parlamentuak haiek baimendu behar ditueneko kasuetara murriztuz. Gobernuak bere kabuz edo beste entitate, korporazio edo erakunde batek eskaturik eginitako aukerako kontsultek beharrezko izanen dute hark aurretiaz hala erabakitzea. Halaber, txostenak emateko epeen araubidea egun baliodunetan izateari egokitu zaio, eta Kontseiluak hartu du hori murrizteari buruzko erabakia, larrialdi-kasuetan.

Era berean, Parlamentuko bizitzak erakutsi du beharrezkoa dela Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Biltzarreko organo politikoa baita, irizpenak eskatu ahal izatea, Mahaiak gain. Mahaiak, organo administratibo eta barne-kudeaketakoa baita, horretarako ahalmena dauka; Eledunen Batzarrak, ordea, bere proposamenak Mahaiak onar ditzala behar du, nahiz eta, Erregelamenduak esleituriko eskumenak ezberdinak izateagatik, hari dagokion gairik garrantzitsuenak aztertu eta ebaztea, are Mahaiaren erabakien aurka aurkezturiko errekurtsioak ere.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzea beharrezkoa da, modurik onenean antolatua egon, funtzionatu eta duen eginkizun instituzional garrantzitsua betetzeko.

1. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 6. artikulua honako testu hau izanen du:

"6. artikulua. Osoko Bilkura.

Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran jardunen du. Osoko Bilkura kontseilukide guztiek osatua izanen da".

2. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 16. artikulua honako testu hau izanen du:

"1. Nahitaez, honako afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren aholkua:

a) Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko.

b) Foru legeen aurreproiektuak edo administrazio-xedapenen proiektuak, baldin eta Nafarroako Kontseiluaren antolamendua, eskumena eta funtzionamendua ukitzen badute.

c) Legegintzako foru dekretuen proiektuak.

d) Konstituziokontarakotasun errekurtsioak eta Konstituzio Auzitegiaren aurreko eskumen-gatazkak.

e) Foru Komunitateak Estatuarekin eta autonomi erkidegoekin sinaturiko hitzarmen eta lankidetzak akordioak, horiek sinatzeko Nafarroako Parlamentuaren aurretiazko baimena behar denean, eta horiei buruzko zalantzak edo desadostasunak.

f) Foru legeen aurreproiektuak, Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bidez hala eskatzen duenean.

g) Foru legeen proiektu eta proposamenak, Nafarroako Parlamentuak bere Lehendakariaren bidez hala eskatzen duenean, Eledunen Batzarren, Biltzarreko Mahaiaren, Parlamentuko bi talderen edo foru parlamentarien bosten baten ekimenez.

h) Legeak betearazteko ematen diren errege-lamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, baita horien aldaketak ere.

i) Foru Komunitateko Administrazioaren esku-bide ekonomikoei buruzko transakzioak, judiziozkoak nahiz judizioz kanpokoak, eta aipaturiko eskubideei buruz sor daitezkeen gatazkak arbitrajepean jartzea, betiere auzigaiaren zenbatekoa berrogeita hamar milioi pezeta baino gehiagokoa bada, aipaturiko bi kasuetan. Edonola ere, kontsulta ez da nahitaezkoa izanen eskubide horiek ukitzen dituzten itun edo hitzarmenetan, prozesu konkurtsaleen ondorioz sortuak direnean; hain zuzen ere, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko

Foru Legearen 15. artikulua 2. idatz-zatiko bigarren lerrokadan aipatzen diren horietan.

j) Berrikuspen-errekurtsio administratiboak.

k) Foru Komunitateko Administrazioak izapidaturiko espedienteak, baldin eta legeak nahitaez eskatzen badu organismo aholku-emaile baten irizpena; betiere, aipaturiko espedienteak honako gai hauei buruzkoak badira, besteak beste:

– Kalte-galerak ordaintzeko erreklamazioak, hogeit mila pezetatik gorakoak badira.

– Administrazioak bere kabuz berraztertzea administrazio-egintzak.

– Hirigintza-planeamenduko tresnak aldatzea, baldin eta aldaketaren xedea berdeguneen edo espazio libreen bestelako zonifikazioa edo erabilerak bada.

– Udal dermioak aldatzeko espedienteak.

– Hitzarmen eta kontratu administratiboen interpretazioa, deuseztasuna eta amaiaztea, kontratistak aurkako jarrera agertzen duenean.

– Kontzesio eta kontratuen aldaketak, baldin eta horien zenbatekoa, dela bakarka dela guztiak hartuta, kontratuaren esleipen prezioaren 100eko 20 baino handiagoa bada eta kontratuaren esleipen prezioa 1.000.000.000 pezetakoa edo handiagoa bada.

l) Legearen arabera, Nafarroako Kontseiluaren nahitaezko irizpena behar duen beste edozein gai.

3. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 18. artikulua honako testu hau izanen du:

"18. artikulua. Beste irizpen batzuk.

Halaber, Nafarroako Kontseiluak irizpena emanen du aukerako kontsulta gisa helarazten dizkionten gai guztietan, dela Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bitartez hala eskatzen dionean, Nafarroako Gobernuaren ekimenez nahiz beste korporazio, entitate publiko edo erakunde batzuen ekimenez horretarako akordioa hartu ondoren, dela Nafarroako Parlamentuak bere Lehendakariaren bitartez hala eskatzen dionean, Eledunen Batzarren, Biltzarreko Mahaiaren, Parlamentuko bi talderen edo foru parlamentarien bosten baten ekimenez".

4. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 22. artikulua honako testu hau izanen du:

"Nafarroako Kontseiluak berrogeita bost egun balioduneko epean eman beharko ditu, eskuarki, eskatzen zaizkion irizpenak.

Organo eskatzaileak espedientea presakoa dela justifikatzen duen kasuetan, Kontseiluak epea hamabost egun baliodunera arte jaitsi ahal du.

Salbuespen gisa, Kontseiluak, ebazpen arrazoitu bidez, epea luzatu ahal du, gehienez ere epe naturaletik hamabost egun baliodun gehiago bete arte. Aipaturiko ebazpen hori txostena eskatu duenari jakinaraziko zaio.

Nafarroako Kontseiluak irizpenik ematen ez badu adierazitako epean, izapidea beteta dagoela eta aholkua eskatu zaion gaiari buruz eragozpenik ez dagoela ulertuko da".

5. artikulua. Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 27. artikulua honako testu hau izanen du:

"1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzekoa den araubide juridiko bera ezarriko zaio Nafarroako Kontseiluari, kontratazioari,

erantzukizunari eta administrazio- edo barne-araubidekoak diren gainontzeko arloei dagokienez.

2. Nafarroako Kontseiluari dagokio bere antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduaren proposamena onestea. Nafarroako Gobernuari dagokio erregelamendu hori onestea, foru lege honetako printzipioekin bat etorritz".

Xedapen indargabetzailea

Martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 17. artikulua eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak indargabetu egiten dira.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzea.

Bigarrena. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen

ZIOEN AZALPEN

Osasunerako Mundu Erakundeak Europarako duen eskualde bulegoaren eta nazioarteko adierazpen ugariren bultzadaz, European gaixoen dauzkaten eskubideak sustatzeari buruzko Adierazpena egin zen 1994an, eta bertan jaso ziren laguntza klinikoko harremanetan gaixoen dauzkaten eskubideak, zeinek zuzeneko lotura baitute Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin eta Europakoarekin. Arlo honetan, azpimarratu beharrekoa da Europako Kontseiluko 1997ko apirilaren

4ko ituna, giza eskubideei eta biomedizinari buruzkoa, giza eskubideak eta duintasuna biologiaren eta medizinen aplikazioetatik babesteko. Espainiako Estatuan 2000ko urtarrilaren 1etik du indarra.

Itun hori biologia eta medizina aplikatzean giza eskubideak eta giza duintasuna babesteko araubide komun bat ezartzen duen nazioarteko lehen agiria da, eta loteslea da hura sinatzen duten herrientzat. Itunak jasotzen ditu gaixoei informazioa izateko, informazioan oinarrituriko baimena emateko eta pertsonen osasunari buruzko informazioa pribatua izateko dituzten eskubideak.

Osasunaren babeserako eskubidea 1978ko Konstituzioko 43. artikulua jasotzen du, eta horren oinarritzko araubidea osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorra ezarri zuen, osasun zerbitzuen erabiltzaile diren pertsonen eskubideei dagokienez. Araubide hark barruan hartu zituen informazio klinikoa eta gaixoei euren osasunari dagokionez daukaten autonomia indibiduala.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak zioen azalpenean hauxe esaten du: "Foru legeak osatu eta garatu egiten ditu, Osasunari buruzko lege orokorrean osasun zerbitzuen aurrean hiritarrek dituzten eskubideei buruzko edukinak. Horren gainean, nabarmen dira alde batetik, foru lurraldearen barrenean osasun sorospen publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi diren hiritarregana iristea, eta bestetik, norberaren osasun barrutian ohizko medikua, pediatria, tokoginekologoa eta psikiatra hautatzeko eskubidea. Era berean jasota dago sendagile espezialistak eta ospitale zentrua, arautegi bidez zehaztuko diren baldintzetan, hautatzeko eskubidea". 5. artikuluan, erabiltzaile diren herritarren eskubideen artean, aipatzen dira "haien nortasun, giza duintasun eta barnekotasuna begiratu izateko eskubidea, inongo diskriminaziorik gabe", zein osasun zerbitzutara jo dezaketen jakiteko informazioa izateko eskubidea, haien prozesuaren gaineko informazioa izateko eskubidea, diagnostikoa, pronostikoa eta tratamendu alternatibak barne direla, hautapenen artean libreki aukeratzeko eskubidea, haien prozesuarekin eta osasun etxe publiko eta pribatuetako egonaldiekin zerikusia duen informazioa isilpean mantentzeko eskubidea eta beste batzuk, zuzeneko zerikusia dutenak Administrazioak osasun laguntza behar bezalako baldintzetan ematearekin, erabiltzailearen intimitate pertsonala eta askatasun indibiduala inolako diskriminaziorik egin gabe errespetatzeari dagokionez.

Oinarri horietatik abiatuz, lege honen xedea Osasunari buruzko foru legeko xedapenak osatzea da, laguntza-zentroetan sorturiko dokumentazio klinikoari dagokion guztia sakontasun handiagoz arautuz, eta bereziki azpimarratuz arlo honetan erabiltzaileek dauzkaten eskubideen aitortpena eta zehaztapena.

Bestalde, osasun zerbitzuetako erabiltzaileen askatasunerako eta borondatearen autonomiarako eskubidearen barnean, aurretiazko borondate-agiriak egiteko aukera aintzat hartzen da. Abiaburu gisa, esplizituki aitortzen da pertsonen aurretiazko borondate-agiri bat egin ahal izatea, bizitzaren gaineko testamentu edo testamentu biologiko izenekoa, halakoa den aldetik errespetatu beharrekoa. Horren bidez, pertsonen euren borondatea zehazten dute mediku-ekintza baino lehen, ez dadin gerta beranduago borondate hori ezin adieraztea. Horrelako agiri bat laguntza-elementutzat hartu behar da erabakiak hartzean, gizakiaren eskubideei eta biomedizinari buruzko Europako Kontseiluaren 1997ko ituneko 9. artikulua ezarritakoari jarraituz; alegia, xedea gaixoak bere kontzientziaren jabe izanik, arduraz eta askatasunez adierazitako borondatea zehaztasun handiagoz jakitea da. Borondate-adierazpen hori mugatua da, Espainiako ordenamendu juridikoak ez baitu aukerarik ematen bizia kentzen duten farmakoak zuzenean emanez eutanasia aktiboa gauzatzeko. Holandako Parlamentuak berriki kontrakoa erabaki du, eta, horren ondorioz, judizio moralak alde batera utzita, ildo berri bat ireki da eritasun sendaezin, itzulezin eta mingarrien kasuetan gaixoak daukan askatasunari dagokionez.

Legeak dokumentazio klinikoaren tratamendua arautzen du; zehazki, pertsona bakoitzaren historia klinikoarena. Xedea gaur egungoa baino araubide sistematikoago eta zehatzagoa ezartzea da, irizpide praktikoetan oinarrituz; hala osasun zerbitzuen erabiltzailearen ikuspegitik nola osasun-profesionalenetik; izan ere, azken horiek dira historia klinikoak taxutu eta haiekin lan egiten dutenak. Historia klinikoaren edukia deskribatzen da; zehazki, dokumentu horrek gaixoaren osasun-egoerari buruzko informazio guztia biltzen du, eta osasun-gorabehera bakoitzean izandako jardura kliniko eta osasuneko berri ematen du. Halaber, dokumentazio klinikoari, bertan gordetzen den informazioa eskuratzeari eta informazio hori gorde beharreko denbora-epetegi dagokienez erabiltzaileek dituzten eskubideak arautzen dira.

Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 48 eta 53. artikuluetan xeda-

tuaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak araubide hau ezartzeko eskumena dauka.

I. kapitulua **Xedapen orokorrak.**

1. artikulua. Xedea.

Lege honek xede du osasun sistemaren erabiltzaileak osasun zerbitzuei buruzko informazioa eskuratzeko, osasuna izateko eta bere erabakiak hartzeko autonomia izateko daukan eskubidea arautzea eta osasun zerbitzuetako gaixoen historia klinikoaren araubidea ezartzea.

II. kapitulua **Informazioa izateko eskubidea**

2. artikulua. Laguntza-informazioa izateko eskubidearen formulazioa eta norainokoa.

1. Foru Komunitateko osasun sistemako prestazioetarako eskubidea daukaten herritarrek eskubidea daukate jo dezaketen zerbitzuei buruzko informazioa izateko eta horiek inolako diskriminaziorik gabe jasotzeko.

2. Edozein sorospen-ekintzatan, gaixoeek eskubidea daukate beren osasunari buruz lorturiko informazio guztia ezagutzeko. Pertsona batek ez badu informaziorik izan nahi edo informazioa ahaideei eta lagunei ematerik ez badu nahi, borondate hori errespetatu beharko da, eta bere prozesuari dagokion oro isilpean eduki beharko da.

3. Informazioak sorospen-ekintza guztien osagai izan behar du, baita diagnostiko, pronostiko eta alternatiba terapeutikoena ere. Egiazkoa izanen da, eta modu ulergarrian eta gaixoaren beharrian eta eskakizunen arabera eman beharko da, gaixoari erabakiak autonomiaz hartzen laguntzeko.

4. Gaixoaren erantzukizuna daukan medikuari dagokio informaziorako eskubidea bete dadin bermatzea. Gaixoari laguntzen dioten edo teknika nahiz prozedura zehatz bat aplikatzen dioten sorospen-profesionalek ere erantzukizuna hartu behar dute informazio-prozesuan.

3. artikulua. Sorospen-informazioa izateko eskubidearen titularra.

1. Informazioa izateko eskubidearen titularra gaixoa da. Harekin lotura daukaten pertsonen ere informazioa eman ahalko zaie, hark espresuki edo isilbidez hala baimentzen duen heinean.

2. Gaixoa ezgaia baldin bada, bere ulermen-ahalmenaren arabera eman beharko zaio informazioa, ezertan galarazi gabe haren ordezkaritza

duenari, haren ahaideei edo lagunei ere informazioa eman behar izatea.

3. Baldin eta gaixoa, sorospenaren ardua duen medikuaren iritziz, informazioa ulertzeko edo bere egoeraz jabetzeko gai ez bada, bere egoera fisiko edo psikikoa dela-eta, informazioa ahaideei edo lagunei ere eman beharko zaie.

4. artikulua. Informazio epidemiologikoa izateko eskubidearen formulazioa.

Herritarrek eskubidea daukate osasun kolektiboari arriskuren bat ekartzen dioten osasun arazo orokorrei buruzko ezagutza egokia izateko eta informazio hori nahiz prebentzio edo tratamendurako osasun neurriak egia errespetatuz, era ulergarrian eta osasuna babesteko moduan jakinaraz daitezten.

III. kapitulua **Intimitaterako eskubidea.**

5. artikulua. Intimitaterako eskubidearen formulazioa eta norainokoa.

1. Pertsona orok eskubidea du bere osasunari buruzko datuekin eta osasun zentro publiko edo pribatuetan izandako egonaldiekin zerikusia duen informazio guztia isilpekoa izan dadin. Era berean, eskubidea du bere baimenik ez duen inork horiek eskuratu ahal izan ez ditzan, indarreko legediak interes orokorrari dagozkion arrazoen ondorioz horretarako baimena ematen duenean izan ezik.

2. Osasun zentroek 1. idatz-zatiak aipatzen dituen eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dituzte, eta, kasua bada, arauak eta protokoloak eginen dituzte, gaixoei buruzko datuak era zilegian eskuratzen direla bermatzeko. Kasu horretan, informazio horiek ematearen arrazoiak eta horretarako modua azaldu beharko zaizkie erabiltzaileei.

IV. kapitulua **Gaixoaren autonomia eskubidea errespetatzea.**

6. artikulua. Informazioan oinarrituriko baimena.

1. Osasunaren esparruko edozein ekintzatarako beharrezkoa izanen da haren xede den pertsonak bere baimen berariazko eta librea eman izana, aurretiazko informazioa jaso ondoren, 2. artikulua ezarritakoari jarraituz. Baimen horrek idatzizkoa beharko du izan ebakuntzen eta prozedura diagnostiko inbaditzaileen kasuan, eta, oro har, gaixoaren osasunean eragina izan dezaketen arrisku edo arazo agerikoak eta aurreikusteko

modukoak ekar ditzaketen prozedurak egin behar direnean. Baimena edozein momentutan atzera bota ahalko da, askatasunez.

2. Baimen-agiriak kasu bakoitzerako berariazkoa izan beharko du, orriak eta bestelako informazio-bitarteko orokorrak erantsi ahal izatea ezertan galarazi gabe. Agiri horrek kasuan kasuko prozedurari eta horren arriskuei buruzko behar adinako informazioa agertu beharko du.

7. artikulua. Baimenaren baldintzaren salbuespenak eta baimena ordezkartiaz ematea.

1. Honako hauek baimena ematearen baldintza orokorraren salbuespen-kasuak dira, eta kalte-turiko pertsonaren osasunaren alde nahitaezkoak diren ekintza klinikoak egitea ahalbidetzen dute:

a) Osasun publikorako arriskua dagoenean eta ekintza osasun-arrazoiak direla-eta beharrezkoa denean, aplikatzekoa den legediari jarraituz.

b) Sendatu ezineko lesioak edo heriotza eragiteko arriskua egoteagatik gaixoaren integritate fisiko edo psikikorako arrisku larri eta berehalakoa izanik gaixoaren, bere ahaideen edo lagunen baimena lortzea ezinezkoa denean.

2. Baimena ordezkartiaz emateko egoerak hauexek dira:

a) Eriak erabakiak hartzeko gaitasunik ez daukanean bere egoera fisiko edo psikikoak egoeraz jabetzen uzten ez diolako. Kasu horretan, sorospenaren ardura daukan medikuak haren ahaideen edo lagunen baimena eskatuko du.

b) Legezko ezgaitasun kasuetan, nahasmendu psikikoengatik osasun etxeetara eramandako pertsonak direnean eta adin txikikoen kasuan, baimena tutoretza edo kuratela daukanak eman behar du.

Adin txikiko emantzipatuek eta hamasei urte baino gehiagoko nerabeek euren baimena pertsonalki eman beharko dute. Dena den, haurdunaldia borondatez etetearen, entsegu klinikoaren eta giza ugalketa lagunduko teknikak aplikatzearen legezko kasuetan, legedi zibilak adin nagusitasunari buruz oro har ezarritakoa beteko da, eta, kasua bada, aplikatzekoa den berariazko araudia.

3. Bigarren idatz-zatiko a) eta b) letretan definituriko kasuetan, pertsona baten lesio sendaezinak edo hura hiltzeko egiazko arriskua saihesteko presakoak eta nahitaezkoak diren ekintzak baimenik izan gabe egin ahalko dira.

4. Pertsona kaltetuaren borondatea ordeztzen den kasuetan, medikuaren erabakiak eta ekintzak erriaren duintasun pertsonala errespetatu behar dute, eta arrazoituak, objektiboak eta proportzio-

nalak izan behar dute. Betiere, ahalegina eginen da bai eriak bai haren ahaide eta lagunek ahalik neurri handienean parte har dezaten erabakiak hartzeko prozesuan.

8. artikulua. Aurretiazko borondateen adierazpena edo biziaren gaineko testamentua.

1. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria edo biziaren gaineko testamentua mediku ardurdunari edo osasun-taldeari zuzendutako agiri bat da, eta bertan, adin nagusiko pertsona batek edo lege honi jarraituz gaitasuna aitortzen zaion adin txikiko batek bere borondatea adierazten du, askatasunez, arduraz eta jakinaren gainean, eta xedapen batzuk ematen ditu, zenbait baldintzaren ondorioz pertsonalki eman ezin dituen egoeran kontuan hartu beharrekoak.

Aurretiazko borondateen adierazpen-agirian oharra jaso ahalko dira egoera kliniko kritiko eta onbideraezinetan neurri aringarrien bitartez sufri-mendua saihesteko ahaleginak egin daitezken -- heriotzaren prozesuan aurrera egin arren--, neurri-gabeko edo ohiz kanpoko tratamenduen bitartez bizia artifizialki luza ez dadin eta heriotza-prozesua gehiegikeriaz eta irrazionalki luza ez dadin.

Agiri horretan, pertsonak berak bere borondatea adierazterik ez duen kasurako ordezkari bat izenda dezake. Pertsona hori solaskide baliodun eta beharrezko bakarra izanen da mediku edo osasun-ekipoarentzat.

2. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria edo biziaren gaineko testamentua osasun-zerbitzuek eta haren egilearekin nolabaiteko zerikusia daukaten pertsona guztiek errespetatu beharrezkoa izanen da, testamentu bat bailitzan.

Gutziz eraginkorra izateko, aurretiazko borondateen adierazpen-agiria 1. idatz-zatian zehazturiko baldintzetan egin beharko da, eta honako prozedura hauetakoren bat jarraituz formalizatuko da:

a) Notarioaren aurrean. Kasu honetan, lekukorik egotea ez da beharrezkoa izan.

b) Adin nagusikoak diren eta jarduteko gaitasun osoa daukaten hiru lekukoren aurrean. Horietatik bik, gutxienez ere, ezin izanen dute agiri-egilearekin bigarren mailarainoko ahaide-loturarik ez eta ondare-harremanik izan.

3. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria zuzentzen zaien pertsonak ez dituzte kontuan hartuko eutanasia aktiboko jokabidetzat har daitezkeen xedapenak edo ordenamendu juridikoaren edo praktika kliniko egokiaren kontrakoak direnak, eta xedapen-egileak xedapenak adieraztean aurreikusitako egitatezko baldintzak zorrozki bat ez datozenean ere ez ditu xedapen horiek kon-

tuan hartuko. Kasu horietan, gaixoaren historia klinikoan behar bezalako ohar arrazoitua idatziko da.

Osasun administrazioak bermatuko du osasun-profesionalek kontzientzia-eragozpenerako daukaten eskubideak ez duela artikulua honetan aitorturiko eskubidea mugatzen. Horrelakorik gertatuz gero, gaixoak agirian adierazitako borondatea bermatzeko behar diren neurriak hartu behar ko ditu.

4. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria gaixoari sorospena ematen zaion osasun-zentroari entregatuko dio agiri-egileak, bere ahaideek edo bere ordezkariak. Agiri hori gaixoaren historia klinikoari erantsi behar ko zaio.

V. Kapitulua Historia klinikoa.

9. artikulua. Historia klinikoaren definizioa eta tratamendua.

1. Historia klinikoak gaixo bakoitzaren sorospen-prozesuari buruzko dokumentu-multzoa biltzen du, eta prozesu horretan parte hartu duten medikuak eta gainerako sorospen-profesionalak identifikatzen ditu. Gaixo bakoitzaren dokumentazio klinikoa neurririk handienean bategina egoteko ahaleginak egin behar dira. Gutxienez ere, bategite hori zentro bakoitzaren esparruan egin behar ko da; bertan, gaixo bakoitzerako historia kliniko bakarra egon behar ko da.

2. Historia klinikoak euren segurtasuna, behar bezalako kontserbazioa eta informazio-berreskuratzea bermatzen duten instalazioetan gorde behar ko dituzte osasun-zentroak.

3. Historia klinikoak paperezko, ikus-entzunezko eta informatikako euskarrien bidez egin daitezke, baldin eta haien edukia egiazkoa eta etorkizunean osoki eskuragarria izatea bermatzen bada. Edozein kasutan bermatu behar koa da aldaketa guztiak haietan jasotzen direla eta haiek egin dituzten medikuak eta osasun-profesionalak identifikatzen direla.

4. Bildutako datu pertsonalak babesteko eta horiek istripuz suntsitu edo galdu edo baimenik gabe eskuratu, aldatu, komunikatu edo beste edonola prozesatzea saihesteko behar diren neurri tekniko eta antolaketakoak hartu behar dituzte osasun-zentroek.

10. artikulua. Historia klinikoaren edukia.

1. Historia klinikoak identifikazio-zenbaki bat izan behar du, eta honako datu hauek jaso behar ko ditu:

a) Gaixoa eta sorospena identifikatzeko datuak:

- Gaixoaren izen-deiturak.
- Jaiotza-eguna.
- Sexua.
- Norbanakoaren osasun-txartelean jasotako identifikazio pertsonalerako kodea.
- Ohiko helbidea eta telefonoa.
- Sorospenaren eta, kasua bada, ingresuaren eguna.
- Jatorria, baldin eta gaixoa beste sorospen-zentro batetik bidali baldin badute.
- Sorospena ematen den zerbitzu edo unitatea, kasua bada.
- Gela eta ohearen zenbakia, gaixoa ingesatua badago.
- Gaixoaren ardura daukan medikua.

b) Datu klinikoak eta sorospenari buruzkoak:

- Aurrekari familiarrak eta pertsonalak, fisiologikoak nahiz patologikoak.
- Unean uneko eritasunaren edo osasun-arazoaren deskribapena eta hortik aurrerako kontsulten zioak.
- Erabilitako prozedura klinikoak eta horien emaitzak, prozedura edo azterketa espezializatuen kasuan emandako irizpenak eta kontsultako orriak.
- Bilakaera klinikoari buruzko orriak, gaixoa ingesatu baldin badute.
- Medikuntza-tratamenduari buruzko orriak.
- Informazioan oinarrituriko baimenari buruzko orria, kasua bada.
- Gaixoari diagnostikoaren berri emateko luzatu zaion informazio-orria eta agindu zaion plan terapeutikoa, kasua bada.
- Epikrisiari edo senda-agiria emateari buruzko txostenak, kasua bada.
- Borondatezko senda-agiria, kasua bada.
- Nekropsia-txostena, halakorik baldin badago.
- Ebakuntzarik egin bada, ebakuntza-orria eta anestesia-txostena erantsi behar dira, eta erditze kasuan, erregistro-datuak.

c) Datu sozialak:

- Txosten soziala, kasua bada.

2. Medikuek edo sorospen-talde batek baino gehiagok parte hartzen duteneko ospitale-historia klinikoetan, xeheaturik adierazi behar dira profesional bakoitzak eginiko ekintzak, esku-hartzeak eta preskripzioak.

3. Osasun-zentroek historia klinikoaren eredu normalizatu bat izan behar dute. Eredu horrek artikulua honetan ezarritako edukiak islatu beharko ditu, zentro bakoitzaren sorospen-mailari eta ematen duen prestazio-motari egokituak.

11. artikulua. Historia klinikoaren erabilera.

1. Historia klinikoa gaixoari behar bezalako sorospena eman dakion bermatzen laguntzeko tresna bat da, nagusiki. Horretarako, gaixoaren diagnostiko edo tratamenduari zerikusia daukaten zentroko sorospen-profesionalek historia klinikoa eskuratu ahal izan behar dute.

2. Zentro bakoitzak jardunbide bat ezarri beharko du posible izan dadin gaixo jakin bati sorospena ematen zaion bitartean hura zaintzen duten profesionalek uneoro eskuratu ahal izatea kasuan kasuko historia klinikoa.

3. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren eta horiekin bat datozen xedapenetan ezarritakoari jarraikiz, epidemiologia, ikerketa edo irakaskuntzako helburuetarako eskura daiteke historia klinikoa. Historia klinikoa aipaturiko xedez eskuratzeak gaixoaren identifikazio pertsonaleko datuak babestera behartzen du, izaera kliniko eta sorospenekoa dutenetatik bereiziz, hark aurretiaz baimena eman duenean izan ezik.

4. Osasun-zentroetako administrazio eta kudeaketa eginkizunetara arduratzen diren langileek historia klinikoan aipaturiko eginkizunekin zerikusia daukaten datuak baizik ezin dituzte eskuratu.

5. Ikuskatze eginkizunak betetzen dituzten eta behar bezala kreditaturik dauden osasun-administrazioetako langileek historia klinikoak eskura ditzakete, sorospenaren kalitatea, gaixoaren eskubideak edo zentroak gaixoekiko edo osasun-administrazioarekiko duen beste edozein betebeharrak bete ote den egiaztatzeko.

6. Dituzten eskumenen erabilera-esparruan historia klinikoko edozein datu eskuratzen duten langileek datu horiek isilpean edukitzeko betebeharra izan behar dute.

12. artikulua. Historia klinikoa gordetzea.

1. Gutxienez ere, gaixoa hil ondoren hogeitun urte igaro arte gorde behar da historia klinikoa. Dena den, sorospenerako muntadunak ez diren dokumentuak hautatu eta suntsi daitezke, gaixoari emandako azken sorospenetik hamar urte igaro direnean.

2. Edozein kasutan, historia klinikoan, gaixoa identifikatzeko datuekin batera, honako hauek

gorde behar dira gaixoa hil denetik gutxienez ere hogeitun urte igaro diren arte: informazioan oinarrituriko baimenaren orriak, senda-agiria emateari buruzko txostenak, txosten kirurgikoak, erditze-erregistroa, anestesiarik buruzko datuak, azterketa osagarriari buruzko txostenak eta nekropsia-txostenak.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, fakultatiboaren aburuz prebentzioaren, sorospenaren edo epidemiologiaren arloko ondorioetarako muntaduna den dokumentazioa behar den denbora guztian gorde beharko da.

VI. kapitulua

Historia klinikoari dagozkion eskubideak.

13. artikulua. Historia klinikoa eskuratzeko eskubideak.

1. Artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritako salbuespenak salbuespen, 10. artikuluan aipatzen den historia klinikoko dokumentazioa eta hartan agertzen diren datuen kopia bat eskuratzeko eskubidea dauka gaixoa. Osasun-zentroei dagozkie historia klinikoa eskuratzen dela bermatzeko prozedura arautzea.

2. Gaixoa historia klinikoko dokumentazioa eskuratzeko duen eskubideak ezin izan behar dio inoiz kalte egin aipaturiko dokumentazioan agertzen diren hirugarrenen datuak isilpekoak izan daitezkeen hirugarren horiek daukaten eskubideari, ez eta horien prestaketan esku hartu duten profesionalek daukaten eskubideari. Profesional horiek euren iruzkin, iritzi edo idazpen subjektiboaren isilpekotasuna eska dezakete.

3. Gaixoa historia klinikoa eskuratzeko daukan eskubidea ordezkaritza bitartez ere erabil daiteke, baldin eta ordezkaritza behar bezala frogatua badago.

14. artikulua. Historia klinikoaren edukiari dagozkion eskubideak.

Gaixoa eskubidea dauka osasun zentroek historia klinikoaren zaintza aktibo eta arduratsurako jardunbide bat ezar dezaten. Zaintza horrek posible egin behar du Lege honetako 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz isilpekotasunaren printzipioaren pean dagoen informazioa bildu, eskuratu, bat egin eta komunikatzea.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak sustapen-lanak egin beharko ditu, zeresana daukaten agente guztien parte-hartzea bermatzen duen prozesu baten bitartez, gaixo bakoitzeko his-

toria kliniko bakarra egotea, Nafarroako sorospen-zentroen artean historia klinikoen erabilera konpartitua egitea eta haiek eskueran dagoen informazio kliniko guztia eskuratu ahal izatea posible eginen duen sistema bat ezar dadin.

Xedapen iragankorra.

Osasun-zentroek urtebeteko epea daukate, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik kontatzen hasi beharrekoa, historia klinikoen tratamendua bertan ezarritakora egokitzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolaketakoak hartzeko eta 10. artikulua aipatzen dituen historia klinikoen eredu normalizatuak prestatzeko. Epe hori

igaro ondoren egiten diren sorospen-prozesuak eredu normalizatu onetsiei jarraituz adierazi beharko dira dokumentuetan.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio foru lege honek ezarritakoa erregelamenduz garatzeko.

Bigarrena. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak.

Hirugarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko martxoaren 27ko 32 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen

Kontseilua sortzen duen Foru Lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko maiatzaren 21eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ondare historiko-artistikoa osatzen duten ondasunak errespetatu eta babestu egin behar direla

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ondare historiko-artistikoa osatzen duten ondasunak errespetatu eta babestu egin behar direla".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dio Osoko Bilkurari:

Iruñeko Ziudadela eta harresiak Monumentu Nazional deklaratuak izan ziren 1939ko irailaren 25eko Agindu bidez, zeina azaroaren 7ko Estatu-ko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Deklarazio horren barnean sartzen ziren Iruñeko harresietako hondar-multzoa eta haiei dagozkien elementu guztiak; baita Printzearen Gotorlekua eta Magdalena, San Pedro eta Miluzeko zubiak ere.

Apirilaren 6ko 883/1968 Dekretu bidez (hilabete horretako 29an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean), Iruñeko Multzo Historiko-Artistikoa

deklaratu zen, eta honako lau eremu hauek bereizi ziren, haietako bakoitzak babes-araubide berekia zuela:

I. Eremu historiko artistikoa bera, zorrozki hartua (EHA). Barruan hartzen ditu Alde Zaharra, bastioiak eta Ziudadela. Osoki kontserbatu beharrekoa da.

Eremu ukiezinak edo ia ukiezinak dira, eta euren izaera osoa, giroaren eta estiloaren ikuspegitik, kontserbatu beharrekoa da.

II. Errespetu eremua (EE): Erdi Aroko hirigunean eta Ziudadelan kokatua dagoen sektore erakia.

Eremu moderno edo eraldagarriak dira, eta haietan eraikinen bolumena kontrolatu behar da (altius non tollendi deritzon hirigintza-zorra), hiri-paisaia eta hiriak kanpotik begiratuta duen silueta babesteko.

III. Antolamendu bereziko eremuak (ABE): horietan, eraikinek Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiak alde zurretik onetsitako plano baten araberakoak izan behar dute.

Arga ibaiaren inguruko ikuspegia babesteko, alde zurretik hirigintza-antolamendua egitea beharrezkoa da, eta horren bidez zenbait monumenturi ingurune egokia ezarri behar zaie, egon litezkeen bestelako alderdi batzuk —hala nola hirigintzakoak, historikoak, artistikoak edo monumentalak—alde batera utzi gabe.

IV. Eremu berdea (EB):

Eremu libre edo natural gisa mantendu behar diren eremuak (non aedificandi deritzon hirigintza-zorra).

Otsailaren 8ko 332/1973 Dekretuaren bitartez (urte bereko otsailaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) Monumentu Historiko-Artistikoa Nazional

deklaratu zen Iruñeko Ziudadela. Dekretu hori eman baino lehen, 1972ko abenduaren 29an Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak erabaki zuen Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiari eskatzea Iruñeko Ziudadela Monumentu Historiko-Artistiko Nazional deklaratu zezan; horretarako, eskaera eta kasuko espedientea erakunde hari bidali zitzaion.

Halaber, San Zernin eta San Nikolas elizekin batera, Ziudadela arkitektura militarreko monumentuen inbentarioan sartuta dago, eta horien guztien kontserbazio-egoera "oso ontzat" jotzen da. Multzo harresiduna ere inbentario horretan sartuta dago, eta "osotzat" edo "erlatiboki ia osotzat" jotzen da, hain zuzen ere, "hormatal, kubo edo bastioiek multzo horren erdian baino zati handiagoan irauten dutelako. Nahiz eta horiek zaharberritzeko obra handiak beharrezkoak izan".

Ekainaren 6ko 1424/1986 Errege Dekretuak (1986ko uztailaren 10eko Estatuko Aldizkari Ofiziala) Iruñeko Ziudadelako Patronatua bertan behera utzi zuen. Errege Dekretu horrek hauxe esaten du mintzagai dugunari buruz:

2. artikulua: "Ziudadela" deritzon ondasun higiezin behinola Iruñeko Udalarik laga izateak berarekin ekartzen du Espainiako ondare historikoari buruz indarra duten xedapenak bete behar izatea.

Iruñeko Ziudadela babes-mailarik handiena duen multzo historiko-artistikoa osatzen duen ondasuna den aldetik, haren izaera guztia, giroaren eta estiloaren ikuspegitik, errespetatu egin behar da, eta ez dirudi hori bateragarria denik haren izaera hutsaltzen duten eraikin edo tratamenduen bidez hura aldatzeko saioekin. Halaxe ondorioztatzen da ondare historiko-artistikoari buruzko legeditik:

a) 19.1 artikulua debekatu egiten du barne-nahiz kanpo-obrak egitea ondare historikoaren ardura daukan erakundearen (kasu honetan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren) baimenik gabe.

b) 19.3 artikulua debekatu egiten du ondasun higiezinen izaera aldatzen duten eraikinak egitea –adibidez, bastioi baten barnean edo gainean arte-zentro bat egitea—. Debeku hori ez da Vianako Printzea Erakundearen interpretazioaren menpean uzten, baizik eta, legearen borondatez, izaera absolutua du eta ezin da administrazio-ebazpen baten bidez aldatu edo egokitu.

c) 36.1 artikulua behartu egiten du ondasun higiezin horiek kontserbatu, mantendu eta zaintzera.

d) 36.2 artikulua behartu egiten du ondasun haien erabilera haien balioak kontserbatzen diren heinekoa izatera.

San Antongo bastioian Nafarroako Gobernuak egin berri dituen jarduerak agerian utzi dute, ondare historiko-artistikoarekiko sentiberatasun-gabezia erabatekoa ez ezik, hura babesten duen araubide juridikoari jaramonik ez eginez hura ez errespetatzeko asmo berariazkoa ere izan dela. Bastioiaren hondarrak eraitsi egin zituzten, eta "birreraiki" egin behar izan dira (ez "zaharberritu"), Biltzar Jauregirako proiektuaren arduradun guztien nahiaren kontra; izan ere, haientzat harri horiek euren jarduerarako oztopo baizik ez ziren, eta, horregatik, besterik gabe desagertu beharrezkoak. Kultura Zuzendaritza Nagusiak utzikieriaz jokatu du ondasun kultural eta katalogatuak babesteko daukan erantzukizunari dagokionez, eta mesede egin die ondasun kulturalen aurretik epe laburreko ustezko arrakastak eta itxura hutsezkoak ipintzen dituztenei.

Nafarroako Gobernuaren jokabidea eredu txar bat da, bai sunsiketa-ekintzarengatik bai berea ere izan daitekeen organo baten aurka ekiteko duen betebeharra ez betetzeagatik. Jokabide hori aurki errepika dezake Iruñeko Udalak, egitekoak diren hondeaketetan itxura denez agertuko diren Erdi Aroko eraikinen hondarren inguruan. Beldur gara UPNren gobernu-taldea PSNren laguntzarekin zenbait proiektu eta esleipeni ematen ari zaion presako lehentasunak ere ez ote duen ondare historiko-artistikoa babesten duen legedia zanpatuko, edonola gainditu beharrezko oztopotzat jotzen baitute, "eraginkortasunaren" izenean, herri honen historia eta oroimen historikoa mespretxatzen dutenek.

Horregatik, Nafarroako Demokratikoen Elkarguena-CDNren talde parlamentarioak beharrezko jotzen du Nafarroako Parlamentuak adieraztea Nafarroako Gobernuak eta administrazio nahiz partikular guztiek haien jardueran ondare historiko-artistikoa eta bere babes-araubidea errespetatu behar dutela, botere publikoek beren eginkizuntzat hartu behar dutela babes hori ematea, eta berehalakoan erabaki behar dituztela horretarako beharrezkoak diren ekintzak.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurari honako erabaki hau har dezan proposatzen dio:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ondare historiko-artistikoa osatzen duten ondasunek botere publiko eta partikular guztien erabateko errespetu, babes eta zaintza izan beharko dutela, euren jabe den nafar herriaren oroimen

historikoaren zati eta haren identitate eta historia-ren agerpide diren aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio indardun legedia bete dezan eta bitartekoak jar ditzan aipaturiko ondasunak uki ditzaketen jarduera guztietan legedi hori egiazki aplikatzeko, inongo erakunde edo agintarientzat salbuespenik egin gabe, Gobernuaren beraren proiektuak direnean ere, eta agintari, funtzionario, profesional eta edozein pertsonari arau horiek haustearen ondoriozko erantzukizuna eska diezaion.

3. Nafarroako Parlamentuak Biltzar Jauregiko obren arduradun guztien jokabidea gaitzesten du;

izan ere, haiek, berariaz eta alebosiaz jardunez edo euren betebeharrak ez betez, San Antongo bastioia arauz kanpo eraitsi dute, eta gero berre-raiki behar izan da.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez multzo historiko-artistikoko ondasunak ukitzen dituzten lan eta ekintzen zuzeneko jarraipen zorrotza egin dezan, baita arkeologi hondarrena ere, eta horren berri berehalakoan eman diezaion Parlamentu honi.

Iruñean, 2001eko apirilaren 19an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean presako tramitazioa eman dakion:

Zioen azalpena:

Herritar eta farmaziako lizentziatu askorentzat itzaropentsu eta positiboa den prozesu bat hasi

zen 2001eko apirilaren 3an. Alabaina, Parlamentuko Talde Sozialistak iritzi negatiboa dauka prozesu horren hasierari buruz, bizi garen mende-hasiera honetan lotsa eragiten duen ikuskizuna suertatu baitzen: erregistro publikoen aurrean zenbait egun eta gau iraun zuten jende-ilarak izan ziren, aplikatu beharreko erregelamendu-mailako araudi argi eta gardenik ez egoteagatik.

Azterturiko informazioa konplexua denez, egoerari buruzko iritzi osatua izatea zaila da. Dena den, iritsitako ondorioetatik abiatuz, kezkatzen gaituzten honako gai hauek sortzen zaizkigu:

a) Eskabideak aurkezteko unea eta tokia.

– Eskabideak erregistro askotan aurkeztu izana.

– 8:30 baino lehenagoko eskabideak onartu izana.

– Erregistro guztiek ez dituzte ordua, minutuak eta segunduak inprimatzen.

– Erregistro guztien funtzionamendua ez da ez homogeneoa ez berdina izan, horrek ezinezkoa dirudien arren.

b) Kokagune berari buruzko eskabideak.

– Legeak ezarritako 150 metroko gutxieneko distantzia dela-eta, zenbait eskabide eremu bere-rako izatea suertatu da.

– Zenbait erregistrotan aurkeztu ahal izatearen ondorioz, aldiberekotasun-kasuak izan dira.

c) Lekualdaketak

– Legea blokeatzea beste helbururik ez duten lekualdaketa-eskabideek kezkatzen gaituzte.

d) Lekualdatzearen xede den lekua eta farmazia irekitzeko eskabidearena bat bera izatea.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du farmazia-eskabideen ebazpen-prozesuan honako irizpide hauek kontuan izan daitezten:

1) Gure ustez, eskabideen hurrenkera kronologikoak ez du irizpide bakarria izan behar. Bidegabekotzat jotzen dugu, erregistroei buruz emandako azalpenetan oinarrituz; izan ere, gai serio bat halabehararen eta kasualitatearen baitan uzten da.

2) Auzitegi Gorenaren 1984-11-20ko eta 2000-07-18ko epaiak argigarriak dira gai honetan, eta gure iritziz kontuan hartu behar diren irizpideak agertzen dituzte.

3) Toki berari buruzko eskabideen kasuan:

a) Ez dirudi bidezkoa denik segundu gutxi batzuk erabakigarri suertatzea baimena emateari dagokionez.

b) Toki berari buruzko eskabideen kasuan, Osasun kontseilariak interesatuen arteko adostasuna bilatu eta erraztu beharko luke, eskatzaileen

borondatea farmazia bat irekitzea dela dirudiela.

c) Ezin bada akordiorik iritsi, ebazpena irizpide objektiboagoetan, baremoa kasu, oinarritu beharko litzateke, esperientzia eta curriculumak kontuan hartuz.

4) 2001eko apirilaren 3a baino lehenagoko lekualdatzeen kasuan, horiek baimendu beharko lirateke legea blokeatzeko abusuak ez direla egiaztatzen den guztietan. Bi hilabeteko epe bat ezarri beharko litzateke, eskaturiko lekualdatzeak benetan hori duela helburu egiaztatzeko.

Apirilaren 3an eta handik aurrera aurkezturiko lekualdatze-eskabideak farmazia irekitzeko eskabideen espediente berean sartu beharko dira.

5) Gezurrezko lekualdatzeen eta nahi ez diren farmazietarako eskabideen arteko blokeatzea saihestea. Horretarako, hauxe proposatzen dugu:

a) Espedienteak behin-behinekoz ebaztea, eta 15 eguneko epea ematea, halako moldez non eskatzaile bati farmazia bat esleitzen bazaio eta eskabide gehiago baldin baditu bat aukeratu eta gainontzekoei uko egin ahal izan diezaien. Epe zehatz eta publikoa, ziurgabetasuna saihesteko.

b) Espedienteen behin betiko ebazpena beranduago izan dadila; bi hilabetetan egin liteke.

6) Komenigarria litzateke inolako elementu komunik gabeko espedienteak lehendabizi ebaztea, eta azkar egitea, maiatzaren hasierarako.

Iruñean, 2001eko apirilaren 26an.

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko dokumentalista eta liburutegiko laguntzailea izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat eginen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Deialdi honen oinarriak ondoko hauek izanen dira:

1. oinarria.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bitartez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izan-gaiak Biltzarreko funtzionarioentzat –teknikoari kidegoko teknikari diplomadunen eskalakoentzat, hain zuzen– ezarritako eginkizunak bete beharko ditu, eta horien eskubide eta betebeharrak izango; zehazki, Nafarroako Parlamentuan lanpostu horri ezarri zaizkion hurrengo zereginak izango ditu: dokumentazioa edo informazioa sortu, batu, bildu, aztertu, berreskuratzea eta zabaltzea; informazioa

erabiltzeko teknologiak, agertzen diren euskarrietan agertzen direla, garatu eta kudeatzea; artxiboak eta liburutegiak katalogatu eta kudeatzea, eta Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio zerbitzuburuak edo Biltzarreko beste unitate administratibo edo organo batek, lanpostu hori menpeko badu, esleii diezazkiokeen antzeko zereginak, dokumentalistaren jakintza arlokoak baldin badira.

1.3. Lanpostua egungo lanpostuen sailkapeneko B mailari dagozkion lansariez hornituko da; bateraezintasuneko osagarria gehituko zaio, % 35, eta lanpostu osagarria, % 5, indarra duten xedapenekin bat.

1.4. Lanaldia goiz eta arratsaldeko ordutegian eginen da, baina Parlamentuko organo eskudunek edozein unetan alda dezakete.

1.5. Deialdi honetako lanpostu kopuruari gero-ago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio; alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. oinarria.- Hautagaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langilariaren Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu horiek lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko dira. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko, Kontuen Ganbarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) B mailako funtzionarioa izatea.

b) Unibersitateko diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko, edo haien baliokidea den tituluaren jabe izatea.

c) Dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile lanpostu baterako izendatua izatea.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, hautapen prozesuak dirauen bitartean eta izendatu arte bete beharko direla ulertuko da.

3. oinarria.- Eskaerak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, deialdi honetan argitaratutako ereduari lotua, aurkeztu beharko dute, eta bertan ondoko hau azaldu:

a) Izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta, baldin badu, telefonoa, eta, halaber, deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazten duen aitortpena; azken hori frogatzeko, ziurtagiriak erantsi beharko dira.

b) Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eraskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztagiriak, behar bezala kautotuak.

3.2. Eskabideak Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari igorriko zaizkio, eta lanegun eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira Parlamentuko erregistro nagusian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epean.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahaliko dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, eta akatsik izan bada horiek zuzendu, betiere zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epean.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko lehendakariak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko lehendakariak

onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

4.5. Izangai bazterturik ez badago zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

5. oinarria.- Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Mahaiburua: José M^a Aierdi Fernández de Barrena jauna, Nafarroako Parlamentuko Mahaiko bigarren idazkaria.

Ordezkoa: Amelia Salanueva Murguialday andrea, Nafarroako Parlamentuko Mahaiko lehenengo idazkariordea.

Mahaikideak:

1. Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza jauna, Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua. Bera arituko da idazkari.

Ordezkoa: Carlos J. Gil Martínez jauna, Prentsa, Protokolo eta Argitalpen Zerbitzuko burua.

2. Araceli Iturri Villanueva andrea, Langileen Batzordeak izendatu baitu.

Ordezkoa: M^a Victoria Larrañeta Lizarrondo andrea, Langileen Batzordeak izendatu baitu.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epean eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak epaimahaiak ebatziko ditu, bai eta oinarrietan aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere.

5.5. Epaimahaiak behar dituen kanpoko aholkularitza izan dezake alegaturiko merezimenduak neurtzeko, bai eta merezimenduen baremoa bera ere argitzeko.

6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta egiaztatutako merezimenduak deialdi honen I. eraskinean azaldu baremoari

jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

6.3. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzintasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Horrela ere berdinketak irauten baldin bada, lehiakide zaharrenaren alde ebatziko da.

6.4. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak paratuiko ditu Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean, eta bost eguneko epea irekiko du interesatuek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

6.5. Epaimahaiak ezin izanen du, inola ere, alegatu eta agiriaren bidez frogatu ez den merezimendurik baloratu, ez eta atal bakoitzean zehaztu gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

7. oinarria.- Gainditu dutenen zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

7.1. Epaimahaiak izangai guztien kalifikazioa emanen du eta izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostu kopurua handitzeko behar den erabakia hartu eta zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

7.2. Biltzarreko Mahaiak puntuaziorik altuena lortu duen izangaiari emanen dio lanpostua, eta haren izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

8. oinarria.- Jabetza hartzea.

8.1. Izangaiek izendatu eta hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du lanpostua, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela hartuko da, eta, hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengoak diren izangaiekin beteko da lanpostua.

9. oinarria.- Agiriak hartzea.

9.1. Aurkezturiko agiriak erretiratzen ahalko dituzte izangaiek, baldin eta alde zuzen horretarako eskaera espresa egiten badute, non eta

erreklamazio edo errekurtsorik aurkeztu ez den. Eskaera hiru hilabeteko epean aurkezten ahalko da; epe hori kontatzen hasiko da izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabete igaro direnean.

9.2. Aurkezturiko agiriak erretiratu gabe aurreko idatz-zatian aipaturiko epea igaro ondoren, izangaiek horiek berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, hark galdu egingen du horretarako eskubidea, eta erretiratu gabeko agiriak suntsitu egingen dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak itzultzen ahalko zaizkio erreklamazio edo errekurtsoren izapidatzeak posible egiten duenean.

10. oinarria.- Errekurtsuak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze errekurtsua, Biltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta, biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta, biharamunetik kontatzen hasita, bi hilabeteko epean.

10.2. Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko gauzatzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua jartzen ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta, biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Merezimenduen baremoa

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak:

1) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, deialdian eskaintzen diren lanpostuak bezalakoetan aritu izana: puntu bat urte bakoitzeko.

2) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, deialdian eskaintzen diren lanpostuak bezalakoetan aritu izana: 0,75 puntu urte bakoitzeko.

3) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, arestikoak ez beste lanpostuetan aritu izana: 0,25 puntu urte bakoitzeko.

4) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, arestikoak ez beste lanpostuetan: 0,20 puntu urte bakoitzeko.

Oharrak:

1go. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2gn. a) Idatz-zati honi dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntukoa izanen da.

3gn. Lanaldi ez osoz emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4gn. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5gn. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza ekitaldietan parte hartu izana: 0,10 puntu kreditu akademiko edo haren baliokideko (10 ikastordu), eta, gehienez ere, 7 puntu.

Oharrak:

1go. Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

2gn. Ikastorduen iraupena agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen bailiran baloratuko dira.

3gn. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak bailiran baloratuko dira.

4gn. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuak Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutako sartuko dira.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako

edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldizkari espezializatuetan lanak argitaratzea eta argitaratutako itzulpenak: 2 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean egina den eta biltzarrik edo argitalpenak herri, eskualde, Estatu edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekitaldiak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartu izana:gehienez ere, puntu bat. Epaimahaiak baloratuko du horien iraupenaren arabera.

b) Idatz-zati osoko oharrak:

1go. Deialdiko lanpostuarekin zerikusirik duten merezimenduak bakarrik baloratuko dira idatz-zati honen barruan.

2gn. b) Idatz-zati honetako gehieneko puntuazioa 10 puntukoa izanen da.

II. ERANSKINA

Izen-deiturak: _____

Adina: _____

NAN zenbakia: _____

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta

kodea): _____

_____.

Telefono zk.: _____

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2001eko apirilaren 23ko erabakiaren berri izan dut; haren bidez, dokumentalista eta liburutegiko laguntzaile izateko lanpostu bat betetzeko lekualdatze lehiaketarako dei egin da, eta lehiaketa horretan parte hartu nahi dut.

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharreko baldintza guztiak betetzen ditut eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horiek horrela,

ESKATZEN DUT:

Eskaera honetan aipatzen den lekualdatze-lehiaketan onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2001eko _____(e)an

Sinadura:

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariaren ebazpena, 2001eko apirilaren 9koa, Kontuen Ganbarako antolamenduari buruzko erregelamendua aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bileran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

2001eko apirilaren 9ko Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariaren ebazpena, Kontuen Ganbarako antolamenduari buruzko erregelamendua aldatzen duena ikusita, ERABAKI DA:

1. Ebazpen horren jakitun dagoela adieraztea.
2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariaren ebazpena, 2001eko apirilaren 9koa, Kontuen Ganbarako antolamenduari buruzko erregelamendua aldatzen duena

Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak honako ebazpen hau eman du:

"Kontuen Ganbarako lehendakariak 1996ko maiatzaren 20an emandako ebazpenaren bitartez, Kontuen Ganbarako antolamendu erregelamendua onetsi zen. Bertan, erakundeko lanpostuak eta horietako bakoitzari dagozkion eginkizunak deskribatzen dira. Erregelamendu hori urte hartako maiatzaren 31ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Urteotan izan dugun esperientziak agerian utzi du ezen, Kontuen Ganbara hain tamaina txikiko erakundea izanik, maiz gertatzen dela lanpostu jakin bati dagozkion berriazko eginkizunak betetzeko xedez lanpostu hori eratzea justifikaezina izatea, dagoen lan-zama kontuan hartuz gero. Kasu horietan, badirudi arrazionalagoa dela beste lanpostu ezberdin batzuen eginkizunak ere maila

beraren barruan biltzen dituzten edo lanpostu zehatz bati beste bati dagozkion eginkizunak gehitzen dizkioten lanpostu jakin batzuk eratzea plantilla organikoan.

Kontuen Ganbaran jadanik horixe gertatzen ari da kontu-hartzaitza eginkizunari dagokionez; izan ere, eginkizun hori ez du kontu-hartzaile batek betetzen, erakundearen tamainak ez baitu lanpostu hori eratzerik justifikatzen, baizik eta Kontuen Ganbararen antolamendu erregelamenduko 25. artikulua beste lanpostu batzuei esleitzen die, eta gaur egun Kontuen Ganbarako audiotretza-teknikari batek egiten du lan hori.

Desberdintasunak desberdintasun, kasu horixe ere izan liteke kazetari-itzultzailearena bezalako lanpostuena. Izan ere, eginkizun horietarako lanpostu ezberdinak sortzeak ez luke une honetan justifikaziorik izanen, postu horietako bakoitzari eginkizun urriak legezko keelako Kontuen Ganbaran. Dena den, eginkizun horiek postu bakarrean biltzea, horrela metatuko litzatekeen lan-zama kontuan izanik, erabat justifikatuta legoke.

Gaur egun indarra duen Kontuen Ganbarako antolamendu erregelamenduak ez du aukera hori aurreikusten; horregatik, aipaturikoa ahalbidetzeko xedapen bat gehitu behar zaio. Ondoren, eraturiko lanpostua kasuan kasuko plantilla organikoan jasoko da.

Lehen azalduko kontuan izanik, zerbitzu juridikoei eta erakundeko langileen batzordeari entzun ondoren, erabaki dut Kontuen Ganbarako 1996ko maiatzaren 20ko antolamendu erregelamenduari honako artikulua hau eranstea:

"9 bis artikulua: Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak, aurreko bi artikuluetan deskribaturiko lanpostuei aurreikusten zaien lan-zama kontuan hartuz, kazetari-itzultzaile lanpostu bat sortu ahalko du erakundeko plantilla organikoan. Pertsona horrek, bi kargu horietarako eskaturiko

titulazioa izanik, erregelamendu honek bi lanpostuetarako ezartzen dituen eginkizunak beteko ditu.”

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--